

Proiektuaren deskribapena

Gure proiektua kortina termikoak dira. Produktu honen helburu nagusia gela batean edo espazio itxi batean tenperatura bat mantentzea da hotza edo beroa izan daiteke.

Produktua pertsonen osasuna zaintzeko sortu dugu kontuan hartuta gaur egungo pandemiak behartzen dituen protokoloak. Leku itxiak aireztatutak mantendu behar dira eta hau lortzeko ia kasu guztietan leihoak irekita eduki behar dira. Leihoak irekita egon arren kortina hauek tenperatura mantenduko du nahiz eta leku itxi bat izan. Produktu hau merkatuan berria izango da eta pandemia amaitu eta gero, pentsatzen dugu produktua asetzen duen beharra mantenduko dela.

